

AZTERKETA  
HISTORIKOAK

ESTUDIOS  
HISTÓRICOS

VII



MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



Azterketa Historikoak Euskal Herriko Aintzin Errejimenaren Krisia eta bere ondorioekin zer ikusirik duten zenbait aspekturen ikerketa bultzatzeko helburua duen Zumalakarregi Museoaren argitalpen espezializatua da

Ormaiztegi, 2005



# AZTERKETA HISTORIKOAK

VII



MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

# ZUMALAKARREGI MUSEOA AZTERKETA HISTORIKOAK

VII



## MIGUEL ANTONIO ZUMALACÁRREGUI

(1773-1846)

LEGEGIZON ETA POLITIKARI LIBERALAREN  
BIOGRAFÍA.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Diputatu nagusia

**JOXE JOAN GONZALEZ DE TXABARRI MIRANDA**

Kultura zuzendaria

**IMANOL AGOTE ALBERRO**

© ZUMALAKARREGI MUSEOAREN ARGITALPENA (Gipuzkoako Foru Aldundia)

Zuzendaritza

K6 Kultur Gestioa

Karmele Barandiaran

Testuak

Mikel Alberdi

Maketazioa

Lurdes Azpiazu

Lege gordailua

SS-198/2005



# AURKEZPENA



Zumalakarregi Museoak **Azterketa Historikoak VII** argitalpena aurkezten du. Oraingoan monografikoa, egun gutxi ezagutzen den pertsonai baten biografia dakar, nahiz eta bere garaian garatu zituen legegizon eta politikari ekintzek euskal liberalismoaren ardatz bihurtu zuten: Migel Antonio Zumalakarregi.

Zumalakarregi Museoaren ibilbidea ezagutzen dutenek badakite ez dela bere bilduma interesgarria zaindu eta kontserbatzera mugatzen. Aitzitik, lantzen duen garaia, XIX. mendeari lotuta eta ohikoa duen zorrotasun zientifikoari atxekiz, bere edukinen zabalkunde lerro originala garatzen du. Gure arbasoen bizitzari lotutako gai anitzak, modurik atseginez aurkezten ditu, ibilbide tematiko, argitalpen, simposio, web orrialde edota aldi baterako erakusketen bitartez. Ohiturak, garraioak, baztertuak, esplorazio bidaiak edo karikaturak dira egundaino Museoaren ekintzen artean jorrotutako zenbait gai.

Gaurkoan agertzen dugun gaia Tomas Zumalakarregiren anaia liberalaren biografia da, euskal liberalismoaren aintzindarietako bat izan arren, egun erabat ahaztuta dugun pertsonaia. Lan hau burutzerakoan garatutako ikerketa lanaren eredu, gaurdaino ezezaguna zen Migel Antonioren erretratu baten aurkikuntza aipa dezakegu, Osunako Unibertsitatean gordetako. Egundaino ezaguna genuen Burgosko Auzitegian dagoenarekin parekatuz oso desberdina izan arren, hain gutxi ezagutzen den pertsonai honen ikonografia osatzeko oso interesgarria, zalantzarik gabe.

Argitalpena ohiko paperezko edizioaz gain, *pdf* agiri moduan digitalizaturik aurkezten da, sarearen bitartez Museoaren web orrialdean konsultagarri, nahi duenak paperean inprimatzeko aukera eskainiz. Honela, aditu zein



interesatu soilei informazioaren hurbilketarako erraztasun guztiak eskaintzen zaizkie.

Argitalpen honek Zumalakarregi Museoaren ibilbidean pausu bat gehiago suposatzen du, gure historiaren garai erabakigarri horren ikerketa eta zabalkundeari dagokionean.

IMANOL AGOTE ALBERRO  
KULTURAKO ZUZENDARI NAGUSIA





# SARRERA



Historiak askotan paradoxa esanguratsuak eskaintzen dizkigu. Garai bateko perzepzioa, denboraren eraginez, erabat aldatua iristen zaigu guri eta historigileon lana, besteak beste, aldaketa hauek argitzea da, zalantzarik gabe. Gaur jendearen atentzioa deitu eta interesa pizten duena bihar ahaztua dateke eta alderantziz.

Zumalakarregi anaien kasuan honelako zerbait gertatzen da. Goierriin ondo kokatutako familia bateko partaide, Migel Antoniok Zuzenbideko ikasketak Sevillako unibertsitatean burutzeko aukera izan zuen. Cadizko Gorteetan Gipuzkoako ordezkari izendatua, bere legegizon ibilbidea egoera politikoaren arabera garatu zuen, alegia, liberalek boterea eskuratu zutenetan. Hamabost urte gazteagoa zen Tomasek eskribau izateko ikasketak Iruñean burutu zituen. Baina Frantsesadaren eztrandak gerrilari bihurtu zuen, gerra ostean karrera militarra lotuz. Anaia bakoitzaren ibilbideak zirela medio, ez zuten harreman esturik izan.

1833ko euskaldunek Zumalakarregi izena entzuterakoan, seguru aski Migel Antonioren pentsatuko zuten, ordurako euskal liberalen buru ezagunenetakoa baizen, Tomas, berriz, militar ilun bat besterik ez zen bitartean. Alegia, famatua Migel Antonio zen. Baina handik bi urteetara, Karlistadak eztanda egin ondoren, Tomasen garaipen militarren ondorioz, anaia gaztea bihurtu zen ospetsua. Armada karlistaren antolakuntza eta buruzagitza distiratsuak egin zuten Tomas ospetsu, izan ere, urte eta erdi eskasean, sakabanatutako nekazari talde matxinatu batzuk besterik ez zirenak, armada liberari aurrez aurre borrokatu eta berau hiriburuetan aterpetzera behartu



zuen ejerzitoa bihurtu baizituen bere jarraitzaileak. Honi lotzen badiogu, lagun eta etsaien laudorioak bultzatuko zituen bere ezusteko heriotza eta pertsonaiaren mitifikazioa, ez da harritzekoa anaien artean ezagunena Tomas bihurtzea.

Nahiz eta geroztik Migel Antonio Auzitegi Goreneko partaide hautatua izan, hiru aldiz Espainiako Gorteetan diputatu Gipuzkoako ordezkari legez, Donostiako alkate, senadore Segoviako ordezkari gisa, baita Nafarroako ordezkari gisa ere, eta Espainiako "Gracia y Justicia"ko ministro, Zumalakarregi izena Tomasi lotua aurkituko dugu beti. Gainera Tomasen itzalak Migel Antonio erabat desagertarazi du jendeen memoriatik. Ez al da paradoxikoa Donostiako kale baten izena Tomasi dedikatzea, sekula hiri honekin harremanik izan ez zuena, bertako alkatea izan zen Migel Antonioren orde? Argi dago ospe militarra arrakasta politikoen gaintik dagoena.

Anaiaren itzal horretatik irteten laguntze arren, burutu dugu ikerketa sakonen ondorio den biografia hau, besterik ez bada, Zumalakarregi izena aipatzean Tomasekin batera Migel Antonioren izena eta izana gogoratu ditzagun.



## Aurkibidea

Frantsesada .....	15 orr.
Cadiz-eko Gorteak.....	17 orr.
Absolutisten errepresioa.....	20 orr.
Hirurteko Liberala.....	22 orr.
Gerra Karlista .....	26 orr.
Ministeriorantz.....	28 orr.

## Eranskina

1. Dokumentua .....	34 orr.
"Relación de los ejercicios literarios, grados y meritos de D. Miguel Antonio Zumalacarregui, abogado de los Reales Consejos" Madrid, 18-II-1800. Archivo del Ministerio de Justicia. Personal de Ministerio. N° 2024 letra Z.	
2. Dokumentua .....	36 orr.
Certificado emitido por Jose Cuervo Castrillón, Secretario de la Junta Superior del Principado de Asturias, sobre las actividades de Miguel Antonio Zumalacarregui contra el francés. Luarca, 16-IV-1810. Archivo del Ministerio de Justicia. Personal de Ministerio. N° 2024 letra Z.	
3. Dokumentua .....	38 orr.
"Respuesta Fiscal en la causa contra D. Miguel Antonio Zumalacarregui" Madrid, 30-I-1815. Archivo del Ministerio de Justicia. Personal de Ministerio. N° 2024 letra Z.	
4. Dokumentua .....	42 orr.
Diario de Sesiones de las Cortes Generales y Extraordinarias. Cortes de Cádiz. N° 886, p.5519.	
5. Dokumentua .....	43 orr.
Solicitud de traslado del preso M.A. Zumalacarregui de su prisión del Cuartel de Reales Guardias de Corps. Maria Ventura Larrea, Madrid,	



17-V-1814. Archivo del Ministerio de Justicia. Personal de Ministerio. N° 2024 letra Z.

6. Dokumentua ..... 44 orr.  
"Extracto de la causa formada contra D. Miguel Antonio de Zumalacárregui diputado que fue en la Cortes extraordinarias por la Provincia de Guipuzcoa..." Francisco Belloc, Madrid, 11-IX-1815. Archivo del Ministerio de Justicia. Personal de Ministerio. N° 2024 letra Z.

7. Dokumentua ..... 50 orr.  
Carta de M.A. Zumalacarregui pidiendo ser restituido en su puesto de oidor. Valladolid, 20-XII-1818. Archivo del Ministerio de Justicia. Personal de Ministerio. N° 2024 letra Z.

8. Dokumentua ..... 52 orr.  
Madrilgo "Subdelegado Principal de Policia" delakoak prestatutako txostena (1830-III-28). Archivo del Ministerio de Justicia. Personal de Ministerio. N° 2024 letra Z.

9. Dokumentua ..... 55 orr.  
Jaquin-bide Iritarautia Españiaco Neurquidaren, edo Constituzio berriaren erara adrezatua Erritarren arguidoraraco, Gazteen icasbideraco, eta escola-maisuen usoraco. Gasteiz, 1991

10. Dokumentua ..... 57 orr.  
Migel Antonio eta Tomas Antonio Zumalakarregiren arteko korrespondentzia.  
Zumalakarregi Museoa. Colección Documental / Marqués de las Hormazas. 1,11 eta 1,36.

11. Dokumentua ..... 61 orr.  
Autos realizados en el Juzgado de Primera Instancia de Madrid a pedimento de Dña. Magdalena Yera -ama de gobierno de D. Miguel Antonio de Zumalacarregui- sobre la testamentaria de éste último. Madrid, 12-V-1846.  
Zumalakarregi Museoa. Colección Documental / Marqués de las Hormazas. 3,143.

Irudien iturriak ..... 65 orr.

Erabilitako bibliografia ..... 67 orr.

Migel Antonio Zumalakarregi Idiazabalen jaio zen, 1773ko otsailak 20ean eta biharamunean bataiatu zuten bertako parrokan. <sup>1</sup> Gurasoak, Francisco Antonio Zumalakarregi Mugica, Idiazabalgo eskribaua eta Maria Ana Imaz Altolagirre, Goierriko gizartean ongi kokaturiko familietako partaide ziren. Honek eskaini zion Migel Antoniori ikasketak kanpoan egiteko aukera. Izan ere, bere ikasketak Andaluzian burutu zituen. Cordobako San Pelagio eskolan Filosofia ikasi zuen bi urtez, ondoren Sevillako unibertsitatean "Filosofia Moral" urtebetez eta Legeak beste hiru urtez ikasteko.



1. "El Exmo. Sor. D. Miguel Antonio Zumalacárregui, natural de Idiasabal. Ministro de Gracia y Justicia, Diputado & Cortes en las Constituyentes de Cádiz y otras, fue alumno de esta Universidad de Osuna"

Batxilergoa Legeetan Osunako Unibertsitatean jaso zuen, 1794ko maiatzean. Berrito Sevillako Unibertsitatera jo zuen "Sagrados Cánones" Fakultatean bi urtez ikasteko, honi dagokion Batxilergoa 1796ko maiatzean jaso.

---

<sup>1</sup> Fe de bautismo de Miguel Antonio Zumalacarregui redactada por el párroco de Idiazabal Jose Javier de Ayerbe el 4 de enero de 1798. **Archivo Histórico Nacional (AHN)**. FF.CC. Mº de Hacienda. Leg. 513, exp. 2642.



Handik urtebete luzera, 1797ko urrian, ikasketak eta beharrezko praktikak burutu ostean, Sevillako Erret-Entzutegian onartu zuten abokatu bezala. Hilabete beranduago Erret Kontseiluan lanbide honetan hasi zen.<sup>2</sup>

## Frantsesada

Administrazioari lotutako bere lehenengo lanpostua Oviedon lortu zuen, Asturiasko entzutegian Alkate Nagusi modura, 1803.go abenduaren 17an. Hiri honetan ihardun zuen lau urtez, bertan Maria Ventura de Larrearekin ezkonduz. Bitartean entzutegi honetako "Oydor" kargua eskuratu zuen, frantsesen inbasioa iritsi zen arte.<sup>3</sup> Poliziak 24 urte geroago burututako txosten batean, kargua lortzeko arrazoia bere emaztea izan zena dio: "dudarik gabe Godoyren etxeko neskame batekin ezkondua zelako".

Beste garaikide askori bezala -bere anaia Tomas, besteak beste- bizitza aldatuko dio Frantsesadak. Hasieran, Gaztelako Kontseiluaren aginduei jarraituz, frantziar agintariei men egin zien, baina Penintsulan hauen aurkako altxamendua orokortzen hasi zenean hiria utzi eta gerrilariekin bat egin zuen. 1809ko maiatzean Oviedora nekazari jantziz sartu zen frantsesen indarrak aztertzerako espioi modura, hiria eskuratzeko espainiar armadaren eraso bideratuz. Gainera erasoaren abangoardian parte hartu zuen, behin hiriaren kontrola espainiarren eskutan erortzerakoan ordenu publikoa mantentzeko ahaleginetan parte hartuz. Baina frantsesak gutxi irauten zuten Asturiasetik kanpo, 1810eko urtarrilean Oviedo berreskuratu

---

<sup>2</sup> "Relación de los ejercicios literarios, grados y meritos de D. Miguel Antonio Zumalacarregui, abogado de los Reales Consejos" Madrid, 18-II-1800. **Archivo del Ministerio de Justicia (AMJ)**. Personal de M<sup>o</sup>. N<sup>o</sup> 2024 letra Z. [Eranskina. 1. dokumentua]

<sup>3</sup> "Hoja de Servicios del Sr. D. Miguel Antonio de Zumalacarregui..." **AHN**. FF.CC. M<sup>o</sup> Hacienda. Leg. 2829, exp. 68.

baitzuten. Migel Antoniok berriro etxe eta ondasunak utzi eta frantsesen aurkako borrokari ekin zion. Gerrilari taldeak antolatzen, Gerrarako Juntaren partaide eta idazkari modura edo Asturiasen eman ziren borroka gehienetan zuzenean parte hartuz.<sup>4</sup>



2. Frantsesada

Frantsesada Asturiasen bi ejertzitoen etengabeko atzera-aurrera bat izan zen. 1810eko urriaren 15ean Migel Antonio Extremadurara bidaliko du Asturiasko Juntak, bertako espainiar armadaren buru zen Romanako Markesari laguntza eske. Handik Cadizera joko du helburu berarekin. Bere aginduak bete eta Asturiasera itzuli zen berriro.

Ordurako , irailaren 24ean hasita, Cadizen Espainiako lehenengo Konstituzioa egingo zuten Gorteak bilduta zeuden. Gerra egoeraren ondorioz probintzi askotako ordezkariak lortzea ez zen erraza, are gutxiago Migel Antoniok zeukan legeei buruzko ezagutza zutenak. Honela Gipuzkoako probintziak Idiazabaltarra diputatu hautatu zuen. Migel Antonioren ondasunak Ribadeotik Cadizera itsasoz zeramatzan barkua hondoratu egin zen, inor gutxi ezagutzen zuen

---

<sup>4</sup> Certificado emitido por Jose Cuervo Castrillón, Secretario de la Junta Superior del Principado de Asturias, sobre las actividades de Miguel Antonio Zumalacarregui contra el francés. Luarca, 16-IV-1810. **AMJ**. Ibid.[Eranskina. 2. dokumentua]



hiri berri batean kokatzea nabarmen gogortuz. Gainera hirira iritsi zenean bertan bizi ziren zenbait gipuzkoarren etsaigoa jaso zuen, ez baizuten onartzen bera Gipuzkoako diputatu izan zedin.<sup>5</sup> Dena den, Gorteek abenduaren 20.ean onartu zuten Gipuzkoako ordezkari gisa eta 1811ko urtarrilak 2.ean zin egin zuen bere kargua.<sup>6</sup>

### Cadiz-eko Gorteak

Migel Antoniok Gorteetan izan zuen parte hartzea ez zen oso nabarmena izan, baina zenbait abaguneetan protagonista izatera iritsi zen. Esaterako, 1811.eko martxoan, Jose Imaz jeneralaren defentsan atera zen, Badajoz frantsesen eskuetan utzi ostean Gorteek bere aurkako Gerra Kontseilua bideratzea eskatu zutenean.<sup>7</sup> Martxo honetan bertan Gorteetako idazkari hautatua izan zen, bere aldeko 90 botoekin.<sup>8</sup>



3. Cadiz-eko Gorteak

---

<sup>5</sup> Confesión de D.Miguel Antonio Zumalacarregui. Madrid 19-X-1814.**AHN**. Fondo Consejos Suprimidos. Varios. Causas de Estado. Leg. 6290; Exp.3. p. 74.

<sup>6</sup> Diario de Sesiones de las Cortes Generales y Extraordinarias. Cortes de Cádiz. Nº 85 p. 197(20-XII-1810) eta Nº 98, p. 283(2-I-1811).

<sup>7</sup> Ibid. Nº 175, p. 736 (23-III-1811).

<sup>8</sup> Ibid. Nº 176, p. 743 (24-III-1811).



Urte bereko azaroan Errejentzia Kontseilura joatera baimentzen dute, gipuzkoar batzuen aldeko gestioak egitera.<sup>9</sup> Hurrengo urteko ekainean, 1812.ean alegia, "Ultramar"ko komisioko partaide hautatzen dute.<sup>10</sup> Azaroan, berriz, gerra ostean arazo larrienak sortuko dizkion esku hartzea izan zuen<sup>11</sup>. Gorteetako liburuzaina zen Bartolome Gallardok erlijioa iraintzen omen zuen liburu bat argitaratu zuen, *Diccionario Crítico -Burlesco* izenburupean.<sup>12</sup> Gorteetako diputatu absolutistek Gallardo bere postutik bota eta gogor zigortzeko mozioa aurkeztu zuten, baina ez zuen aurrera egin Migel Antoniok honelako erabakiak botere judizialaren esku utzi behar zirela argudiatu eta Gallardoren aurkako neurriak ekiditea lortu zuelako.<sup>13</sup>

Urte honen hondarrean jasoko du bere anaia Tomasen bisita. Izan ere, Migel Antonioren anaia, Jauregi "Artzaia" gerrilariaren taldean zebilen frantsesen aurkako borrokan eta Cadizen zegoen Erregeordetza Kontseilua informatzera bidalia izan zen. Gerora bakoitzaren bide politikoak bananduko baziren ere, oraindik etsai berberaren aurka ziharduten Zumalakarregi anaiak 1812.ean.<sup>14</sup>

---

<sup>9</sup> Ibid. Nº 396, p. 2197 (2-XI-1811)

<sup>10</sup> Ibid. Nº 581, p. 3251 (3-VI-1812)

<sup>11</sup> "Respuesta Fiscal en la causa contra D. Miguel Antonio Zumalacarregui" Madrid, 30-I-1815. **AMJ**. Ibid. [Eranskina. 3. dokumentua]

<sup>12</sup> Ezagutzen dugun azken argitalpena Josep Fontana historigilearen eskutik datorkigu: **GALLARDO, Bartolomé José**. Diccionario Crítico-Burlesco. Barcelona, 1993.

<sup>13</sup> Diario de Sesiones... Nº 705, pp. 4003-4004 (20-XI-1812)

<sup>14</sup> **MADRAZO, Francisco de Paula**. Historia Militar y Política de Zumalacárregui. Madrid, 1844. 17-18 ork.



4. Tomas Antonio Zumalakarregi

Bitartean Migel Antonioren karrera politikoa aurrera zihoan, bere jarrera moderatuak lagunduta. 1813ko urtarrilak 24.ean Gorteetako lehendakaria hautatu zuten.<sup>15</sup> Bere lehendakaritzapean hartutako erabaki nagusia, Inkisizioa deuseztatzearena izan zen, 1813ko otsailean.<sup>16</sup>

Arestian aipatu dugunez Migel Antoniok Gorteetan hizlari modura izandako partaidetza ez zen oso zabala izan, baina bere ikuspegi liberalaren zenbait testigantza utzi zituen. Esaterako 1813ko ekainean “jefe politico” delakoaren (egungo gobernadoreen antzeko kargua) botereei buruzko erregelamendua egiten ari zirenean, honek jendea gartzelaratzeko izan zezakeen eskumena mugatzearen aldeko jarrera erakutsi zuen.<sup>17</sup>

---

<sup>15</sup> Diario de Sesiones... Nº 754, p. 4589.

<sup>16</sup> Ibid. p. 4532 (22-II-1813)

<sup>17</sup> Ibid. Nº 886, p.5519. [eranskina. 4. dokumentua]



Cadizko Gorteen sesioak 1813.go irailean bukatu ziren egoera politiko oso nahasian. Izan ere, frantsesak penintsulatik kanporatuak ziren dagoeneko eta ikusteko zegoen Fernando VII erregeren jarrera Konstituzioa eta Gorteeekiko. Liberalak beldur ziren Borbondarrak ez ote zuen beraien Estatuaren modernizaziorako lan guztia ezabatuko eta erregetzaren aurkako konspirazioak sortu ziren. Hauetako batean partaide izanaz salatu zuen Migel Antonio, Caballero de Pozo absolutistak, Gallardo, Argüelles, Toreno eta beste hainbat liberalekin batera, nahiz eta salaketan Zumalakarregi besteak bezain liberal muturrekoa ez zena aipatu.<sup>18</sup>

### **Absolutisten errepresioa**

Migel Antoniok Madrilera jo zuen ondoren, baina ez zuen politikan jarraitzerik izan genu debeku (uretra estuegia) gaitzak jota etxetik atera ezinik egon baizen hilabeteetan. Halere Fernando VII.ak 1814ko maiatzean indarrean jarritako legearen bitartez absolutismoa berrezarri zuenean, Migel Antonio atzerrira ihes egin ez zuten beste liberalekin batera, atxilotua izan zen. Atxiloketa maiatzaren 10ean izan zen eta "Reales Guardias de Corps"-en kuartelean giltzaperatua izan zen. Handik aste betera bere emazte Maria Ventura Larreak Migel Antonioren lekualdatzea eskatu zuen kuartelean jarraituz gero gaixotasunak okerrera egingo zuelakoan. Medikuen txostenak atxiloketa bere etxean bertan izatea eskatzen zuen, gaixotasunari aurre egin ahal izateko.<sup>19</sup> Eskaera neurri batean onartua izan zen eta ekainak 22.ean Migel Antonio aipatu

---

<sup>18</sup> **MORÁN ORTÍ, Manuel.** Poder y gobierno en las Cortes de Cádiz (1810-1813). Pamplona, 1986. 309 or.

<sup>19</sup> Solicitud de traslado del preso M.A. Zumalacarregui de su prisión del Cuartel de Reales Guardias de Corps. Maria Ventura Larrea, Madrid, 17-V-1814. **AMJ.** Ibid. [Eranskina. 5. dokumentua]

koarteleetik "Invalidos de de San Martin" izenekora aldatua izan zen, *Erregek agindutako gela erosora*.<sup>20</sup>



5. Madril

Epaiketa urte eta erdiz luzatu zen, egotzitako delitua Cadizko Gorteetan liberalen artean egotea, beraz, Fernando VII.aren eta elizaren aurkako neurriak bideratzea izanik. Arestian aipatu dugunez, bere liberalismoaren adierazle nagusia Bartolome Gallardoren alde erakutsitako jarrera litzateke.<sup>21</sup> Fiskalaren eskaera Iruñeako gotorlekuan 10 urtez konfinatzea izan bazen ere, 1815ko hondarrean absoluzioa jaso zuen baina bere karguetatik at utzi zuten, zegokion soldataren erdia jasoz eta gainera Valladoliden konfinatuz.<sup>22</sup>

Gaztelako hiri honetan ia bost urtez bizitzera behartu zuten Migel Antonio, bere lanbidetik kanporatua.

---

<sup>20</sup> Auto de D. Jayme Alvarez de Mendieta, juez de la causa contra Miguel Antonio, Madrid, 22-VI-1814 **AHN**. Fondo Consejos Suprimidos. Varios. Causas de Estado. Leg. 6290; Exp.3. p. 11.

<sup>21</sup> "Extracto de la causa formada contra D. Miguel Antonio de Zumalacarregui diputado que fue en la Cortes extraordinarias por la Provincia de Guipuzcoa..." Francisco Belloc, Madrid, 11-IX-1815. **AMJ**. Ibid. [Eranskina. 6. dokumentua]

<sup>22</sup> Sententzia eta Valladoliderako desterrua: **AHN**. Ibid. 200-218 ork.



6. Valladolid

Frantsesada aurretik zegoen karguan, "Oydor" delakoan, berrezartzeko eskaerak erregeri bidali zizkion 1818ko abenduan eta 1819ko azaroan, bere hitzetan "jasotzen zuen soldatarekin familia mantentzea ezinezkoa zitzaiolako"<sup>23</sup> Azkenik 1820ko urtarrilean bere eskaera onartua izan zen, nahiz eta Valladoliden deserriratu mantendu.<sup>24</sup>

## Hirurteko Liberala

Hirurteko Liberalari hasiera eman zion altxamenduak Gaztelako hiri honetan harrapatu zuen. Estraineko momentutik altxatutako liberalekin bat egin zuen, sortutako Junta Iraultzaileko partaide izanez.<sup>25</sup>

---

<sup>23</sup> Cartas de M.A. Zumalacarregui pidiendo ser restituído en su puesto de oidor. Valladolid, 20-XII-1818 y Valladolid, 14-XI-1819. **AMJ.** Ibid. [Eranskina. 7. dokumentua]

<sup>24</sup> Oficio de M.A. Zumalacarregui ofreciendo sus servicios a la Regente M<sup>a</sup>. Cristina. Chiclana, 12-XI-1833. **AMJ.** Ibid.

<sup>25</sup> Madrilgo "Subdelegado Principal de Policia" delakoak prestatutako txostena (1830-III-28). **AMJ.** Ibid. [Eranskina. 8. dokumentua ]



Egoera politiko berriak Valladolideko konfinamendua utzi eta Madrilen bere lanbideari ekitea bideratuko dio. Bere bizitzaren konstantea bihurtuko zen politikaren gorabeheren arabera, erantzukizun haundiko karguetatik gartzela edo deserria ezagutzera behartua izatea. 1820ko apirilean Madrilgo Entzutegiko ministro hautatu zuten. Handik hilabetera Epaitegi Goreneko partaide, 1823ko urrira arte mantenduko zuen kargua.<sup>26</sup>

Migel Antonioren liberalekiko atxekimendua Euskal Herrian ere ezaguna zen. Honen lekuko dugu Jose Felix Amundarain, Mutiloako parrokoak, Cadizko Konstituzioa erakusteko katexima euskaratzen duenean (1820) Miguel Antonioren eskaintzea.<sup>27</sup> Dena den, Cadizko Gorteen garaiaren antzera, idiazabaldarra liberal moderatuekin lerratuko da. Masoia ere bazen, Hirurtekoaren politikan sekulako eragina izan zuen elkartea, eta politikarekiko bere posizio moderatua zela medio kanporatua izan zen 1820ko irailean, handik bi hilabetera berriro onartua izan bazen ere.<sup>28</sup>

Madrilgo Entzutegian jarraitu zuen lanean arik eta 1823an tropa frantziarren sarrerak eraginda, Sevilla eta Cadizera jo zuen gobernuarekin batera.<sup>29</sup> Izan ere, Hirurteko Liberalaren amaiera Europar potentziek erabakitako inbasio batek ekarri zuen, Angulemakoko Dukearen agintaritzapean bidalitako "San Luisen 100.000 semeek" burututakoa. Gobernu liberalak frantziar tropetatik ihesi, hegoalderantz jo zuen, Fernando VII, beharturik, berarekin zeramala. Azkenik, Cadizen setiatuak izan ziren liberalak erregea

---

<sup>26</sup> "Hoja de Servicios del Sr. D. Miguel Antonio Zumalacarregui..." **AHN**. FF.CC. M<sup>o</sup> Hacienda. Leg. 2829, exp. 68.

<sup>27</sup> Jaquin-bide Iritarautia Españiako Neurquidaren, edo Constituzio berriaren erara adreztatua Erritarren arguidoraraco, Gazteen icasbideraco, eta escola-maisuen usoraco. Bere garaian argitaratu gabeko eskuizkribua, Juan San Martinek faksimil modura argitaratu zuen, Gasteiz, 1991. [Eranskina. 9. dokumentua]

<sup>28</sup> **ALCALA GALIANO, Antonio**. Memorias.II. Madrid, 1955. 98 eta 112 ork.

<sup>29</sup> Ikus 25 oharra.

libre utzi eta errenditu ziren, 1823ko urrian. Liberal askok Gibraltardik erbestera jo zuen, baina Migel Antonio Cadizen bertan geratu zen.



7. San Luisen 100.000 semeak Bidasoa zeharkatzen

Fernando VIIak boterea berreskuratu zuenean, bahituta eduki zuten liberalen aurkako errepresio gogorra zabaldu zuen, nahiz eta oraindik penintsulan zirauten frantziar ejertzitoen agintariek zigorrak leuntzen ahalegindu. Izan ere, zenbait hiri estrategikoetan, Cadiz kasu, 1828ra arte geratu ziren militar frantsesak. Baliteke Migel Antonio beste bost urte luzez Cadizen geratzea arrazoi honi lotua egotea. Izan ere, aldaketa politikoak berriro instituzioetatik kanpo utzi bazuen, oraingoan ez zuen kartzelarik jasan eta jakina da hiri honetan agintari militar frantsesen eraginez errepresioa beste askotan baino arinagoa izan zena.<sup>30</sup>

Urte hauetan egin zuenari buruz gutxi dakigu. 1827tik aurrera zegokion soldataren laurdena jasotzen hasi zen. Cadizen geratuko da 1829ko udaberrian bere emaztearen heriotza gertatu arte.

---

<sup>30</sup> "...tuvo que consentir que las ciudades ocupadas se convirtieran en punto de encuentro de aquellos que, comprometidos en mayor o menor medida con el régimen liberal, no habían llegado a emigrar. Gracias a la protección francesa, encontraron en estas ciudades un lugar donde, a pesar de la vigilancia ejercida por las autoridades locales, pudieron vivir sin el temor a ser constantemente perseguidos por sus ideas políticas". **BUTRON PRIDA, Gonzalo.** La intervención francesa y la crisis del absolutismo en Cádiz (1823-1828). Huelva, 1998. p. 298.





Orduan emaztearen paperak konpontzera Madrilera joateko baimena eskatu zuen, 1829ko maiatzak 6ean, baina ez zioten eskaera onartu.

Hilabeteren buruan Jerez de la Frontera herrira joango da bizitzera. Madrilera joateko baimena urtebete beranduago, 1830eko apirilean jaso zuen, hiriburuan soilik hilabetez egoteko. Berak beste hilabeteko luzamendua eskatu zuen, baina 8 egun besterik ez zizkioten utzi. Beraz, maiatza eta ekaineko lehenengo astea pasa zituen hiriburuan.<sup>31</sup> Fernando VIIren politika absolutista bigundu bazen ere, liberalak oldartuko zitzaizkionaren beldur bizi zen. Horregatik hiriburutik urrun nahi zituen eta Migel Antonio, berriro hegoaldera joatera behartua, Chiclanan kokatuko da.<sup>32</sup>

Urte hartan bertan Frantzia gertatutako "Uztaileko Iraultza"ren ondoren, zeinean liberalismoa erabat bermatuko den europar potentzia honetan, espainiar liberal erbesteratuak matxinada antolatzen hasi ziren. Ipar eta hegoaldetik zenbait tropen sarrerak Espainia osoan altxamenduak eragingo zituzten esperantzan, Espoz Mina nafarrak Bidasoa zeharkatu zuen 1830eko urrian. Bidasoako Bera hartu eta Tolosa inguruan ibili zen, baina herritarren laguntza ezak Frantziara ihes egitera behartu zuten. Gibraltardik ere zenbait saio egin ziren 1831.ean, ezagunena Torrijosena abenduan, bera eta bere kide guztien fusilamenduarekin bukatu zena. Ez dugu Migel Antonioren erreferentziarik aurkitu, porrot egin zuten konspirazio liberal hauetan.

---

<sup>31</sup> Cadiztik bidalitako eskaerak: **AMJ**. Ibid.

<sup>32</sup> Chiclanatik bidalitako gutunak ere: **AMJ**. Ibid.



8. Torrijos eta bere jarraitzaileen fusilamendua

## Gerra Karlista

Fernando VII.aren heriotza ostean, berriz ere egoera politikoaren aldaketak bere lanbideko atek irekiko dizkio. Azaroaren hondarrean Galiziako Erret-Entzutegiko partaide izendatzen dute, "Oydor" alegia. Baina Galiziako egonaldia oso motza izan zen, hurrengo otsailean Burgosko Erret-Entzutegiko lehendakari izendatu baizuten. Entzutegi hau sortu berria zenez, berau antolatzeko ardura jaso zuen.<sup>33</sup>

Ordurako Karlisten altxamendua hasia zen Euskal Herrian eta Migel Antonioren anaia Tomas hautatu zuten buruzagi militartzat. Idiazabalدارra anaia liberalen alde lerratu zedin saiaturko da, horretarako Logroñora joanez eta handik gutun pare bat bidaliz otsaila eta martxoa hasieran. Tomasi barkamena eta erretiro eroso eskaini arren, honek ez zuen proposamena onartu.<sup>34</sup>

---

<sup>33</sup> "Hoja de servicios..." **AHN**. Ibid.

<sup>34</sup> **Zumalakarregi Museoa**. CD/ MH. 1,11 eta MH. 1,36. [Eranskina. 10.dokumentua]

Hurrengo hilabeteak Burgosko Entzutegia antolatzen eman zituen Migel Antoniok, lehendakari legez irailean inauguratuz instituzio berria.<sup>35</sup>



9. Miguel Antonio Zumalacárregui.  
Burgosko entzutegian gordetzen den olioia

Burgosen urtebete igaro ondoren, 1835.eko irailean Espainia eta Indietako Epaitegi Goreneko ministro izendatzen dute. Berrito agintari liberalen itzalpean bere legegizon Ibilbideak aurrera egin zuen, baita bere karrera politikoak. 1836.ean jaiotako Gorte Konstituziogileetan Gipuzkoako ordezkari gisa Diputatu hautatua izan zen. Gorte hauetako lehendakari izan zen 1837.go otsailean. Azpimarratzekoa da Gorte hauek euskal Diputazioak indargabetu eta aduanak Ebrotik Bidasoara aldatzera behartzen zuten legea onartu zutena, Migel Antonioren oneritziarekin.<sup>36</sup> Diputatu zen bitartean, Donostiako udalaren komisionatu ere bazen, hiriaren

---

<sup>35</sup> “Actas de la instalación del Real Tribunal de la Audiencia de Burgos”. 18-IX-1834. **Archivo Histórico de la Provincia de Burgos**. R. 678.

<sup>36</sup> **MUGICA, José**. Carlistas, moderados y progresistas. Claudio Antón de Luzuriaga. San Sebastián, 1950. 150-152 ork.



interesak Madrilen defendatzeko.<sup>37</sup> Jakina da hiriburuak karlisten setioa jasaten zuena eta probintziako liberal guztien elkargune bihurtua zena. Donostiako merkatarien interesak probintziako jauntxoaren aurka jotzen zuten zuzen zuzenean eta Foruen aldeketa behar beharrezko ikusten zuten. Ideia hauen defentsa sutsua egingo Migel Antoniok hurrengo urtean ere Gipuzkoako diputatu gisa jarraitzen baizuen Gorteetan. Dena den, Donostiaren egoera larria zenez, udalak bere gestioa gutxietsiko du hiriaren hornidura arazoak konpontzeko ezer ez egiteagatik.<sup>38</sup>

## Ministeritzara

Hori ez zen oztopo izan Migel Antonio 1839.ean berriro Gipuzkoako ordezkari gisa Diputatu hautatua izan zedin. Gorte hauetan urrian lehendakariorde hautatu zuten. Gainera Foruen komisioko partaide izan zen, zeinak 1839-X-25ko lege famatuaren oinarriak ezarri zituen. Beraz, Foruen aldeketa alde jo zuen, Donostiako interesen alde eta probintziaren borondatearen aurka agertuz.<sup>39</sup>

Gerraostean Migel Antonio Donostiako alkate hautatua izan zen, 1840ko lehen egunetik.<sup>40</sup> Harrigarria bada ere alkate izan arren ez zen apenas Donostia hurbildu. Hiriarentzat interesgarriagoa da Migel Antoniok Madrilen egin dezakeen lana, Donostian bertan egotea baino, beraz Madrilen jarraituko du.<sup>41</sup> Egoera honek, alkatea hirian ez egoteak, prentsaren kritikak eragingo ditu. Urtarrila bukaeran, "Correo

---

<sup>37</sup> **Donostiako Udal Artxiboa (DUA.)** Actas, 1837: Acta 20; 75 or. (1837-II-1)

<sup>38</sup> **DUA.** Actas, 1838: Acta 106; 221 or. (1838-XII-31)

<sup>39</sup> **AGIRREAZKUENAGA, J.** eta **URQUIJO GOITIA, J.R.** 150 años del Convenio de Bergara y de la ley del 25-X-1839. Vitoria, 1990. 85 or.

<sup>40</sup> **DUA.** Actas, 1840: Acta 1; 2 or. (1840-I-1)

<sup>41</sup> **DUA.** Ibid. Acta 6; 16 or. eta Acta 9; 21-22 ork. (1840, I-11 eta I-18)

Nacional” egunkariaren 729 alean gogor salatu zuten Migel Antonio Madrilen egotea, baina Donostiako udala bere alde agertu zen.<sup>42</sup>



10. Donostia

Uztailean Donostiako udalak M.A. Ormaiztegin dagoela jakinik hiria bisitatzera

gonbidatzen du.<sup>43</sup> Berak gonbidapena onartzen du, baina Madrila joko du berriro, Foruei buruzko legearen komisioan parte hartzera.<sup>44</sup> Azkenean Iraila bukaeran egun batzuk pasatzera etorriko da Donostiara, segituan Madrileratu bueltatzeko.<sup>45</sup> Beraz, esan daiteke Migel Antonioren Donostiako alkatetzat oso berezia izan zena, ez baizen bertan egon, Madrilen bere alde lan egin bazuen ere. Hurrengo urtearen hasieran, 1841.ean, Migel Antonioren ordezkari Eustasio Amilibia hautatuko dute alkatetzat Donostian.

Donostiako ardurak albo batera utzirik Migel Antoniok Gorteko politikan murgildurik jarraitu zuen. Martxoan magistratu izendatu zuten eta “Gran Cruz de la Real y Distinguida Orden de Carlos 3<sup>o</sup>”

---

<sup>42</sup> **DUA.** Ibid. Acta 12; 28 or. (1840-I-25)

<sup>43</sup> **DUA.** Ibid. Acta 74; 146 or. (1840-VIII-5)

<sup>44</sup> **DUA.** Ibid. Acta 79; 154 or. (1840-VIII-20). **MUGICA, J.** Ibid. 245-247 ork.

<sup>45</sup> **DUA.** Ibid. Acta 90; 177 or. (1840-IX-26) eta Acta 95; 185 or. (1840-X-14).



domina ezarri zioten bere "abertzaletasun eta sufrimenduengatik".<sup>46</sup> Maiatzean Segoviako ordezkari modura senadore hautatu zuten. Hemen, zenbait komisiotan parte hartu zuen, Euskal Probintzietan Diputazio Probintzialak ezartzeko osatutakoan lehendakari izan zelarik.

Baina Migel Antonioren ibilbide politikoaren abagune gorena 1842ko ekainean ezagutuko du. Esparteroren errejentzian, gobernu krisi baten ostean, "Gracia y Justicia"ko ministro izendatzen dute. Esan beharra dago, hala ere, transizioko gobernutzat hartzen dutena zenbait egilek, Esparterok botere gehiago eskuratu nahian, pisu eskaseko politikoak hautatu baizituen.<sup>47</sup>

Ministeritzan burututako lanari dagokionez, Desamortizazioaren prozesuari bultzada ematen saiatu zen, epaiketetan gehiegi luzatzen baizen eta, garai nahasi haietan, erregina, Konstituzioa eta erregeordearen defentsan epaileak saia zitezten ahalegindu zen. Izan ere, Esparterok prentsaren presio gogorra jasan zuen, bere politika pertsonalista zela medio eta 1842.go abenduan Bartzelona bere aurka altxatu zelako hiria bonbardatu ostean, gobernu krisian sartu zen. Hurrengo urteko maiatzean gobernu aldatu zuen Esparterok, Migel Antonio bere dimisioa aurkeztera behartuz.

Handik aurrera ongi merezitako jubilazioa eskuratzen saiatu zen. Berau 1843.go otsailetik aurrera jaso zuen<sup>48</sup>

Madriilen Cervantes kaleko 3.ean bizi izan zen. 1846.go maiatzak lehenean, Jose Vicente Oteiza bere medikuak, bere osasunaren egoera ikusita, testamentua egin zezan gomendatu zion. Migel

---

<sup>46</sup> **DUA.** Actas, 1841: Acta 28; 78-79 ork. (1841-III-31).

<sup>47</sup> **PIRALA, Antonio.** Historia de la Guerra Civil, y de los partidos liberal y carlista... VI. Madrid, 1869, 349-350 ork.

<sup>48</sup> **URQUIJO, Jose Ramón.** "Miguel Antonio Zumalacárregui e Imaz". Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1808-1876). Vitoria, 1993.



Antoniok Domingo Bande eskribaua deitu zuen eta bere azken nahiak azaldu zizkion. Hau dokumentua prestatzen ari zenean Migel Antoniok apoplexia eraso bat jasan zuen, testamentua sinatu gabe eriotza aurkituz.

Honen ondorioz sortutako auziak bere azken nahiak ezagutarazi dizkigu. Herentziaren zati nagusia bere etxeakoandreaentzat, zerbitzarien buru zen Magdalena Yerarentzat uzten zuen, "27 urtez bere alboan prestatutako zerbitzu bikainengatik". Morroi bakoitzari 1.000 errial eta beraien ohea emateaz gain, Francisca Guerrero sukaldariari 10.000 errial ematen zizkion.

Testamentuak familiarteko bi pertsona besterik ez ditu aipatzen. Maria Concepcion Aseginolaza iloba, zeinek sukaldariak bezainbeste jasoko duen, 10.000 errial alegia, eta bere seme Dionisio Ayllon, zeinek Migel Antonioren liburutegia jasoko duen.

Azkenik, Cadizko merkataria den Juan Antonio Aranbururi zor dizkion 20.000 errialak ordaintzeko agintzen dio bere oinordeko nagusiarri.

Agiri honek Migel Antonioren eriotzean alboan izan zituen lagunen izenak ezagutarazten dizkigu. Antonio Marcel eta Luis Bonesio, "aspaldiko lagun mina", testamentuaren ardura hartuko dutenak, Mariano Joaquin de Cosio, "Camino de Yerro de Aranjuez" enpresakoa eta egunero bisitatzen zuena, eta Pedro Sanchez Idiazabaldarraren lagun mina hau ere.<sup>49</sup>

Azkenik esan dezagun Migel Antonioren testamentua Goierriekin lotzen duten bakarrak M<sup>a</sup> Concepcion Aseginolaza iloba eta bere seme Dionisio direna. Hamaika urte lehenago, iloba honek berak jaso zuen Tomas anaia Bilbon zauria jaso eta gero bere Zegamako

---

<sup>49</sup> Autos realizados en el Juzgado de Primera Instancia de Madrid a pedimento de Doña Magdalena Yera -ama de gobierno de D. Miguel Antonio de Zumalacárregui- sobre le testamentaría de esta última. **ZM. MH.3,143.**



etxean, bertan zendu arteraino. Berriz ere aurkitzen dugu bi Zumalakarregitarren arteko nolabaiteko lotura eriotzaren orduan.





# ERANSKINA



## 1. Dokumentua

“Relación de los ejercicios literarios, grados y meritos de D. Miguel Antonio Zumalacarregui, abogado de los Reales Consejos” Madrid, 18-II-1800. **Archivo del Ministerio de Justicia**. Personal de Ministerio. N° 2024 letra Z.

*Consta es natural de la Villa de Idiazabal, Obispado de Pamplona, hijo de legítimo matrimonio, y de edad de veinte y siete años, que cumplirá en veinte y uno de este mes.*

*Que estudió por tiempo de dos años la Filosofía en el Colegio de San Pelagio de la Ciudad de Córdoba, asistiendo á sus Cátedras con aplicación y aprovechamiento, y evacuó los ejercicios de lecciones, defensas y argumentos que le encargó su Catedrático. Leyó de repente Súmulas y Lógica, y tambien de oposición, y respondió á los argumentos que le pusieron sus Consdiscipulos, y fue examinado en Filosofía á presencia del Provisor de Córdoba, Canónigos, Rector y Maestro del referido Colegio de San Pelagio de la referida Ciudad de Córdoba, y respondió á satisfaccion de los concurrentes.*

*Que ganó en la Universidad de Sevilla un curso de Filosofía Moral, y tres en Leyes, concurriendo a sus Cátedras con zelo y aprovechamiento, y practicando los ejercicios que le encomendaron sus Catedráticos, habiendo sustentado un Acto menor de Conclusiones en la insinuada facultad de Leyes, y respondido á las réplicas que se le pusieron.*

*Que se graduó de Bachillér en Leyes á Claustro pleno por la Universidad de Osuna en veinte y dos de Mayo de mil setecientos noventa y quatro, habiendo leído para ello media hora con puntos de veinte y quatro de la ley que le dio la suerte en el Código.*



*Deduxo de ella una Conclusión, á la que replicaron dos Catedráticos cada uno por tiempo de un quarto de hora, y otro le hizo varias preguntas por otro quarto de hora sobre materia del Código y Digesto, cuyos ejercicios le fueron aprobados nemine discrepante.*

*Que en la mencionada Universidad de Sevilla cursó dos años la facultad de Sagrados Cánones, asistiendo con igual aplicación y aprovechamiento á las Cátedras, y evacuó los ejercicios que le encargaron sus Catedráticos.*

*En veinte y tres de mayo de mil Setecientos noventa y seis obtuvo por la propia Universidad de Sevilla el grado de Bachillér en la insinuada facultad de Cánones. Leyó media hora con puntos de veinte y quatro del capitulo que le dio la suerte en la Decretales de Gregorio IX, y deduxo de él una Conclusion, á la que le replicaron dos Catedráticos por tiempo de un quarto de hora cada uno, y otro le hizo varias preguntas por otro quarto de hora, y habiendo cumplido en dichos ejercicios, le fueron aprobados nemine discrepante.*

***Que precedida la práctica establecida por Derecho se recibió de Abogado en la Real Audiencia de Sevilla en treinta de Octubre de mil setecientos noventa y siete, y se incorporó de tal en el Consejo Real en diez y ocho de Noviembre del mismo año. Según todo mas por menor resulta de varias certificaciones y otros documentos que ha presentado, y le he devuelto.***

*Madrid 18 de Febrero de 1800*



## 2. Dokumentua

Certificado emitido por Jose Cuervo Castrillón, Secretario de la Junta Superior del Principado de Asturias, sobre las actividades de Miguel Antonio Zumalacarregui contra el francés. Luarca, 16-IV-1810. Archivo del Ministerio de Justicia. Personal de Ministerio. N° 2024 letra Z.

*D. JOSE CUERVO CASTRILLON Abogado de los Consejos Vocal Segundo Secretario de la Junta Superior del Principado de Asturias.*

*Certifico que D. Miguel Antonio Zumalacarregui Oydor de la Real Audiencia de este Principado desde el principio de la gloriosa Comocion de este contra la tirania de la Francia ha seguido, y auxiliado con el maior empeño nuestra Santa Causa, contribuyendo, quanto estubo de su parte, al orden publico , y organización de Nuestro Gobierno, y fuerza Provincial. En las invasiones de la capital que hizo el enemigo el año proximo, y el presente la abandonó este Ministro con su casa y haberes, sufriendo las crecidas perdidas, que eran consiguientes. Hallandose el enemigo en aquella el mes de mayo del año anterior paró este Oydor a la misma y al medio de los franceses a espiar sus fuerzas e intenciones y en virtud del conocimiento que tomó se dispuso el ataque, que les precisó a evacuar el Principado. Entonces por hallarse el D. Miguel en la Vanguardia de nuestro Exercito, tomando material y formalmente parte en sus operaciones fue el primero entre todos sus compañeros que entró en Oviedo por evitar los desordenes consiguientes a la falta de una Autoridad. En la segunda invasión ocurrida en enero del presente año abandonó igualmente la capital, su casa, y efectos con perdidas iguales a la anterior. Al momento organizó una partida, que puso a las órdenes del Jefe de la Vanguardia, colocada en Puentes de Soto, a una legua de la capital: Se halló en todas las acciones de la Vanguardia, de que no se ha separado, y con ella entró segunda*



*vez en la capital el trece de febrero del presente año. Se encontró en las acciones señaladas del catorce y quince del mismo, en las quales, dejando bien puesto el honor de nuestras armas, fué forzosa la retirada, en la qual, salvó este Ministro dos carros de municiones: Reunió mucha tropa diversa, y otra vez se situó con la Vanguardia en la Villa de Salas. Con esta bolbió a entrar en la capital a consecuencia de la gloriosa acción general del diez y nueve de marzo de este año, a que asistió y entrando en Oviedo tomó las disposiciones mas oportunas para la manutención de nuestras tropas, tranquilidad pública y arresto de varias personas sospechosas. Reforzado considerablemente el enemigo, se retiró nuestro Exercito, y con el, este Ministro, que continuó sirviendo en armas en la Vanguardia hasta el dos del corriente. Constando lo dicho de esta Junta Superior le nombró Ministro Togado de la Junta de Guerra, que la necesidad hizo crear para dar tono al Exercito. Y ultimamente, a propuesta de esta ultima fue nombrado su Secretario con voto por la Superior, la cual recomendó a S. M. los servicios de este Oydor, como los de los demas, y del Fiscal de la R. Audiencia. Y para los usos que le convengan, remitiendome a los documentos, que obran en esta Secretaría de mi cargo le doi la presente por duplicado, en Luarca del mismo Principado abril diez y seis de mil ochocientos y diez.*

*Jose Cuervo  
Seg°. Secretario vocal*



### 3. Dokumentua

“Respuesta Fiscal en la causa contra D. Miguel Antonio Zumalacarregui” Madrid, 30-I-1815. **Archivo del Ministerio de Justicia**. Personal de Ministerio. Nº 2024 letra Z.

*El fiscal en vista de esta causa dice: Qué resulta ser D. Miguel Ant. de Zumalacarregi uno de los causantes de los procedimientos de las cortes contra la soberania y derechos de S. M. que tenia reconocidos la nación quando fue jurado Principe de Asturias, y los confirmó y ratificó en el año 1808 quando con aplauso general fue proclamado Rey de las Españas por renuncia y dimisión que hizo del trono su Augusto Padre.*

*Seis testigos y de ellos 4 Diputados cuentan a Zumalacarregui en el numero de aquellos y se confirma por la lectura de los Diarios de Cortes.*

*En 13 de noviembre de 1812 hizo el diputado D. Simon Lopez dos proposiciones: 1ª que se separase inmediatamente a D. Bartolomé Gallardo del empleo de Biblioteca del Congreso y 2ª que se manifestase a la Regencia llevase a efecto la segunda parte del Decreto de las Cortes de 20 de abril procediendo con la brevedad que corresponde a reparar los males que sufra la Religion con todo el rigor que prescriben las leyes.*

*Las dos proposiciones se admitieron a discusión, señalándose el día 20 del propio noviembre para tratar de ellas; con cuyo motivo hizo el D. Simon un largo discurso manifestando lo irreligioso de dicho escrito, haciendo merito de una multitud de prelados que lo habian prohibido. Hizo ver que semejante folleto atacaba directamente a la Religion Catolica sancionada por ley fundamental.*



*En vano será decir, que semejantes escritos que atacan la Religión reconocida por una nación, y que se publican dentro de ella misma son unos papeles, cuyos autores merecen ser castigados con las mas graves penas. Parecía que al oír las proposiciones de D. Simon Lopez no debía haber mas que una voz en todo el Congreso, mas el Sr. Zumalacarregui valiendose del pretexto de no confundir los 3 poderes en las Cortes fixó la proposición preliminar de si habria o no lugar a deliberar sobre las de aquel y separado asi el punto principal logró cortar la discusión para la que se habia señalado día, declarandose no haber lugar a deliberar, pues al día siguiente 21 presentaron 30 votos contrarios a lo acordado el día anterior.*

*El Sr. Zumalacarregui tan amante el día 20 de la consagración de la división de los 3 poderes hizo al siguiente la proposición de que se declarase haber lugar a la formación de causa contra la Junta de la Mancha sin embargo de que la comisión no habia informado en tales terminos. ¿Qual podrá ser el motivo de esta conducta tan estraña? Solo él mismo es quien podrá responder, pues en el primer caso se trataba unicamente de separar a Gallardo y de excitar a la Regencia a que activase los procedimientos contra los que atacaban la Religión, puntos propios de la atribución del Congreso, porque asi como tenia facultad para nombrar Bibliotecario, la tenia igualmente para separarlo, en virtud de la jurisdicción gubernativa, sin meterse por eso en el poder judicial: en el 2º punto, se trata nada menos de suspender a la Junta de la Mancha, Junta que estaba haciendo los mayores y mas distinguidos servicios a la Nación.*

